Zortzi guardia zibil zigortu dituzte duela hogei urte torturatzeagatik

Bizkaiko Lurralde Entzutegiak frogatutzat jo du Zornotzako zazpi herritarrek tratu txarrak jasan zituztela



XOUSE SIMAL
Guardia zibilen aurkako epaiketako azken egunean AABek Bizkaiko Entzutegian torturaren aurka eginiko agerraldia.

Joseba Arruti | BILBO

Bizkaiko Lurralde Entzutegiak zortzi guardia zibil zigortu ditu, 1980ko azaro-abenduetan Zornotzan (Bizkaia) ETAren aurka egindako polizi operazioan herri horretako zazpi lagun torturatzeagatik. Zehazki, Lucio de Sosa guardia zibilari bost tortura delitu egotzi dizkio Entzutegiak, eta hogei hilabeteko kartzela zigorra eta hogei urteko inhabilitazioa ezarri dio.

Jose Vazquez eta Paulino Santos guardia zibilei bina tortura delitu leporatu dizkie epaimahaiak, eta zortzina hilabeteko kartzela zigorra eta zortzina urteko inhabilitazioa jaso dute. Gainerako zigortuen kasuan —Felipe Mateos, Antonio Beltran, Jose Garcia eta Antonio Arias—, Entzutegiak tortura delitu bana egotzi die, eta launa hilabeteko kartzela zigorra eta launa urteko inhabilitazioa ezarri die.

Horrez gain, Antonio Tocon akusatuari bi prebarikazio delitu leporatu dizkiote, eta hamalau urteko inhabilitazio berezia jasan beharko du. Azkenik, torturak jasan zituzten zapi lagunetako bakoitzak —Jon Urrutia, Fernando Irakulis, Juan Luis Irakulis, Ernesto Alberdi, Roberto Zabala, Jon Larrinaga eta Agustin Gisasola— milioi bana pezetako kalte-ordaina jasoko dute. Epaimahaiak Estatuaren erantzukizun zibil subsidiarioa erabaki du.

Hamar akusatutik bi absolbitu

Akusatuen aulkian eseri ziren hamar guardia zibilen artean, bi baino ez ditu absolbitu Nekane San Miguel buru izan zuen epaimahaiak. Antonio Bailok eta Julian Gonzalezek torturak jazo ziren garaian Bilbon ez zirela destinatuta egon adierazi zuten epaiketan. Horretan oinarrituta, Bizkaiko Lurralde Entzutegiak ez die inolako zigorrik ezarri.

Epaiketa ekainaren 18tik 20ra bitartean egin zen, eta bertan entzundako tortura lekukotza gordinen ondorioz, fiskalak bere behin-behineko kalifikazioa aldatu zuen. Izan ere, hasiera batean kasua artxibatzekoeskatu zuen, froga nahikorik ez zegoelakoan,

BANAN-BANAN

Hamar guardia zibil epaitu, zortzi zigortu

Bizkaiko Lurralde Entzutegiak, atzo jakinarazitako epaian, zortzi guardia zibil zigortu ditu 1980. urtean zazpi euskal herritar torturatzeagatik, eta bi absolbitu egin ditu. Hauek dira Entzutegiak erabakitakoak:

ZIGORTUAK

LUCIO DE SOSA. Bost tortura delitu leporatu dizkio Entzutegiak: Fernando Irakulis, Juan Luis Irakulis, Ernesto Alberdi, Roberto Zabala eta Jon Larrinagaren aurkakoak, hain zuzen ere. Ondorioz, hogei hilabeteko kartzela zigorra eta hogei urteko inhabilitazioa ezarri dio. De Sosa torturengatik zigortzen duten hirugarren aldia da. Lehenago, 1980an Josu Torre torturatzeagatik zigortu zuten, eta 1981ean Tomas Linazari tratu txarrak emateagatik.

JOSE GARCIA. Ernesto Alberdi torturatu izana egotzi dio epaimahaiak. Lau hilabeteko kartzela zigorra eta lau urteko inhabilitazioa jasango du.

ANTONIO ARIAS. Ernesto Alberdi torturatu zuela baieztatu du Entzutegiak, eta lau hilabeteko kartzela zigorra eta lau urteko inhabilitazioa ezarri dio.

JOSE VAZQUEZ. Juan Luis Irakulis eta Ernesto Alberdi torturatu zituen. Horren ondorioz, zortzi hilabeteko kartzela zigorra eta kargu edo lan publikoetan aritzeko zortzi urteko inhabilitazioa jaso du.

FELIPE MATEOS. Jon Urrutia torturatu zuela esan du epaimahaiak. Lau hilabeteko kartzela zigorra eta beste horrenbeste urteko inhabilitazioa ezarri diote.

ANTONIO BELTRAN. Jon Urrutia torturatu zuen, eta lau hilabeteko kartzela zigorra eta lau urteko inhabilitazioa jasango du.

PAULINO SANTOS. Zortzi hilabeteko kartzelaldia eta zortzi urteko inhabilitazioa ezarri diote, Fernando Irakulis eta Jon Larrinaga torturatzeagatik.

ANTONIO TOCON. Prebarikazio delitu bi egotzi dizkio Lurralde Entzutegiak, eta horren ordainetan orotara hamalau urteko inhabilitazio berezia ezarri dio. Zazpi zornotzarrek 1980an jasandako galdeketen arduraduna izan zen.

ZIGORGABETUAK

ANTONIO BAILO ETA JULIAN GONZALEZ. 1980 urteko azaro-abenduetan Valentzian eta Madrilen destinatuta zeudela adierazi zuten epaiketan, eta Entzutegiak zigorrik gabe utzi ditu.